



Babarrun onena, Albizturko Juan Ugartemendiarena

SAILKAPENA ▶ Mari Karmen
Iradi eman du bigarren saria eta
Xabier Goikoetxeak hirugarrena

ENKANTEA ▶ Maliko haurrak
lagunduko dituzte enkantean
bildutako 2.200 euroekin ▶ 4

TOLOSA ▶

**Adin txikiko
etorkinen
inguruan
solasean**

Immigrazioaren
jardunaldiak ▶ 5

**KONTXA
ITURRALDE** ▶

«Osabaren
bila etorri
ziren; hilik
agertu zen»

Gerra Zibilan
bizitakoak ez zaizkio
sekula ahaztuko ▶ 7

IBARRA ▶

**Lehen Moto
Rock jaia
egin dute** ▶ 6



Mari Karmen Iradi, Juan Ugartemendia eta Xabier Goikoetxea garaikurrak eskuetan dituztela, atzo sari banaketan. MADDI SOROA

hitza

hitza

**jantzi
hitza
ren
jertseak**

**OIARTZUNGO
VII.ESKALADA
TXAPELKETA
HERRIKOIA**

AZAROAK 18
Elorsoro kiroldegian

Izen ematea:
943 49 25 52
9:00etatik 10:00etara
egunean bertan

Antolatzailea:

hitza

DR. JOSE
GISASOLA
M.D. Fisioterapeuta

OSTEOPATIA MEDIKUA

BIZKARREKO MINAREN
TRATAMENDU NATURALA
Lumbalgia, Hernia Diskala, Ziatika
Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrosia,
Buruhezur-aurpegiko mina, ATM

Nafarroa Eterbidea, 11 / 20400 Tolosa (Gipuzkoa) / T 943 451 422

UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

Bi amerikano Leitzan



Iritsi dira. Estatu Batuetako bikotea ailegatu da. Han daude biak tren geltokian zain, noraezean, batera eta bestera begira. Gu, haiei so. Gizonezkoa, sendoa da, altua. Emakumea ere galanta, benetan deigarria. Ez gaude ohituta halako emakume handiak ikustera.

Elkar agurtu ondoren etxera abiatu gara. Bost egun igaroko dituzte Leitzan eta garbi dute zer ikusi nahi duten hemen dauden bitartean: Bilboko Guggenheim museoa. Gainerako bisitak gure kontura. Ezer gutxi dakite gutaz eta gure herriaz. Soilik, Estatu Batuetako arkitektoak, Frank Gheryk, egindako museoa dela, hori eta kitto. Titanioko xaflen dizdirak aho bete hortz utzi diti; eta paisaiak, Euskal Herriak berak, begiak zabalazki dizkie. Ez zuten ezagutzen, eta ez dut uste berehala ahaztuko dutenik:

«zoragarria da», esan digute argazkiak atera bidenabar.

Donostiara ere eraman ditugu, eta ez digute galdetu noiz hasiko diren erretzen autobusak; Katalunia eta Madrilgo turisten artean ohiko galdera da hori, baina Estatu Batuetako bikoteak ez daki deus ere gutaz. Eta beharbada hobe horrela, laurdena jakitea baino.

Hondarribia eta Donibane Lohitzune hurrena eta itsasotik lehorrera bueltan, Leitzara iritsi gara. Herriko aspaldiko etxeen artean gabiltzala, 17. mendeko

etxe baten atarian jarri dituzte begiak. Gizonak etxe atariko inskripzioan dagoenaz galdetu digu: etxea 1.693an eraiki zutela.

«Etxe hau gure herria baino zaharra go da-eta! Estatu Batuak sortu baino mende bat lehenago egin zuten, alajaina». Orain badakite, Guggenheim museoa eraiki aurretik gurean ere bazirela bestelako eraikinak, bertako hargin, igeltsero eta arotz trebeek eginak. Ate gaineko eguzki lorearen ostoa zenbatzen gelditu dira, txundituta.

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Babarrunaren Astearen harira, Euskal Herri mailan, nahiz atzerrian, hain ezagun egin den jakiaren eta bere elkartearen inguruko xehetasunak ezagutu nahi izan ditugu

ARANTXA ARIZTIMUÑO (TOLOSAKO BABARRUN ELKARTEA) ▶

Tolosako Babarruna

Tolosako Babarrun elkarteak 1.994. urtean sortu zen. Garai hartako helburu nagusia, kanpotik etorritako babarruna bertakoarengatik bereiztea zen. Tolosako Babarrunari balio erantsi bat eman eta kontsumitzaileari kalitatea eta jatorria bermatuko zizkion babarrun bat eskaini: helburu honekin, 2002. urteko udazkenean, Tolosan kokatuta dagoen pabeloi batean Tolosako Babarrunaren egoitza inauguratu genuen. Bertan, elkarteko kideen babarrunak aletu, bereiztu, kongelatu eta enbasatzeko punta-puntako makinarria eta langileak ditugu. Komertzializazio lanak ere bertatik burutzen dira.

Egun, Tolosako Babarrun elkarteak, Gipuzkoako osoan banaturik dauden 70 babarrun ekoizlekin osatzen dute, eta denen artean 20.000 kilo Tolosako Babarrun ekoizten dute urtero.

Euskal babarrunak, Eusko Labela duten Euskal Herriko kalitate goreneko babarrunak dira. Euskal Herriaren ezagunenak, Tolosako Babarruna, Arabako Babarrun Pintoa eta Gernikako Indaba direlarik. Horien artean, Tolosako Babarruna tradizio handiko elikagaia dela Euskal Herriaren esan daiteke. Gure baserrietan tradiziozko erara, ingurugiroarekin errespetuz jokatzuz egiten da, eta erabiltzen diren laborantza teknikei esker, babarrun mota honen laborantza guztiz ekologikoa dela esan daiteke.

Tolosako babarrunak Gipuzkoako baserrietan du bere jatorria, eta kalitatea bermatzeko dagozkion ziurtagiria eta etiketa dituela aurkezten da. Hala, gordina ezezik, prestatua ere aurkitu daiteke. Eusko labelaren ziguiluari dagokionez, Euskal Herriko nekazaritzako elikagaien batez besteko kalitatea gaintzen duten produktuak bereizteko ezaugarria da. Beraz, Tolosako babarrunak Eusko Labelaren ziguilua izatean, batetik, kontsumitzaileari jatorria eta benekotasuna ziurtaturik dituen kalitate goreneko babarruna dela ziurtatzen dio, eta, bestetik, babarrun ekoizleari bere lana babesten dio. Halaber, Eusko Labelaren ziguilua izateagatik, tolosako babarruna ekoizten duten baserriarrek, kalitateko ekoizpena bermatzen duen arautegi tekniko bat bete behar dute.



Tolosako babarrunaren kasuan, bai Euskal Herriaren eta baita estatu mailan ere ospe handia duen babarruna izanik, urtero gorantza doan kontsumitzaile talde batekin aurkitzen gara esan dezakegu.

Bestalde, ekoizpenari dagokionean, Tolosako Babarruna, baserri inguruetakoro soro txikietan eta gehienetan artoari atxikirik ekoizten den babarruna da. Udaberriaren, San Isidro ondorenean eraiten da, gehienetan artoarekin batera edo bestela, makila, sarea, barilak, kañaberak... euskarri bezala erabiliz. Maiatzetik iraila-urria bitartean, belar txarrak kendu eta landareak lurrera erori ez daitezen zaindu behar izaten da. Udazkenean izaten da Tolosako Babarruna biltzeko saioa, lekak hori kolorekoak jartzen direnean eta kanpoan eguzkia eta eguraldi ona egiten duenean. Babarruna bildu ondoren, sikitzeko ganbaran zabalitzen dira.

Babarruna ondo sikitzen denean, zakatan sartu eta Babarrunaren elkarteko egoitzara eramaten dira lekak, eta bertan, horretarako prestatuta dauden makinarria eta langileak, babarruna aletu, bereizi, kongelatu eta enbasatzen dute, merkaturatzeko prest geratzen delarik. Beti ere, babarrun honek, Tolosako Babarruna eta Eusko Label ziguilua eraman ahal izateko gutxieneko kalitate maila gaintzen badute.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO ▶

Usoetara eta birigarroetara ehiztari asko joaten diren garaian gaude. Ehiza honen alde al zaude?

Nik 18 urte ditut eta ehiztaria naiz. Ehiza gaizki badago, arrantza ere bai; berdin berdina da! Ehiztari guztiok harrapatzen duguna —horretera goaz harrapatzera, eta ez hiltzera— jan egiten dugu. Baten bat badago txoriak hil eta bertan uzten dituen; hori ez da ehiztaria eta ez du inoren errespeturik merezi.

PALOMERO ▶

Palomero: zuk ekologizatzen hartzen al duzu zure burua? hori Aitorrek egindako galdera da. Kuriositate hutsa da, jakiteagatik. Ez da inolaz ere eraso bat. Beste kontu bat: eta zer egin behar da orduan ehiztariaren izena eta zeregina zikintzen duten horiek? ze, badira batzuk... Eskopetero asko dago, gehiegi. Ah! eta arrantzarena nik ez dut esan ongi dagonik, inolaz ere. Ehiza da, baina eskopetak erabiltzen ez direlako, suabeagoa dela ematen du, eta bestalde, jendearentzako arriskua ez dago —mendian ehiztariak daudenean kontu handiagorekin ibili behar da, arrantza-leekin ez—. Hori da bakarra: amurrainek ere sufritzen dute, noski. Hori ere ehizatzea da, zalantzarik gabe.

LIERNI ▶

Aupa! Ba bai, ekologizatzen dut neure burua, nik baino denbora gehiago gutxik pasa-

tzen dute mendian. Ehiza saioa bukatzen denean ere mendira joaten naiz, txoriak gustatzen zaizkit, ikusteko, harrapatzeko, jateko, eta animaliak ere bai. Askotan plastikozko poltsa bat eramaten dut eta mendiko zaborra batzen dut: 'Ehiztari' batzuen kartutxo azalak, 'domingeroen' zaborrak... Nik uste dut gero eta eskopetero gutxiago dagoela, zeren lizentzia lortzeko gogo asko eduki behar da eta azterketak gaintu behar dira. Eskopeteroak salatu egin behar dira, dudarik gabe! Oharra: Ehiztariok ez gara joaten animaliak hiltzera, ez akatzera, ez apunteria probatzera... Harrapatzera joaten gara, ehizatza! Arrantza askoz txarragoa da, gero eta arrain gutxiago dago. Kontrola dezatela arrantza gehiago, gure seme-ek ere praktikatu dezaten.

PALOMERO ▶

Zer iruditzen Leidor berritua?

Leidorren hobetu dena eserlekuak dira. Ez zen zaila! Horrenbeste diru gastatzea eta kontentua ez geratzea ere... Kurtsaalen itxura ematearekin ez dela nahikoa! Kontxa itxura dauka, kurbatua bezala. Tolosako Udala ezagututa, kapazak bota eta berria jartzeko, beste behar inportantegorik badirela ahaztuta! en fin...

▶

Ez dakit hobetu den ala ez, baina aditu guztiek diote orain ere akustika ez dela egokia. Orkestrak etorri zirenean eta orain abesbatzekin gauza bera esan dute. Horretarako gastatu al da hainbeste diru? Hori zen helburu nagusia eta eta bada lortu...

BELARRIMOTZ ▶

hitza txokoa^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

▶ DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

KULTURA ▶

Albizturko Juan Ugartemendiaren babarruna, onena

Maliko haurrak laguntzeko enkantean 2.200 euro ordaindu ditu Divinus Catering-ek irabazlearen lakariagatik



Epaimahaiko bost kideak, itxura, kolorea, azala, alea, salda eta zaporea epaitzeko unean. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Egun berezia izan zen atzokoa Tolosan. Eguraldiak kolore grisak erakutsi arren, mila kolore erakutsi zituen herriak, azoka bereziki barazkien kolore berdeak edota mondeju eta odolki hori nahiz beltzak. Guztietan nagusia, ordea, babarrunaren kolorea izan zen. Kolorea, zaporea eta batez ere izena.

Babarrun Astearen azken pausua eman zuen atzokoan Babarrunaren Lehiaketak. Bertan izan ziren Elkarteko kideak, parte-hartzaileen aleak, edota babarrunaren inguruko

Pul-Pul-Pul liburua. Jendeak, ordea, gauza bakarra zuen buruan, irabazlea nor izango zen jakitea, alegia.

Denbora motza luze izan arren, azkenean Albizturko Juan Ugartemendiaren izena entzun zen bozgorailuetatik, bera izan baita aurtengo babarrun onenaren garaile. Bigarren eta hirugarren postuak, Irurako Mari Carmen Iradik eta Albizturko Xabier Goikoetxeak eskuratu zituzten, hurrenez hurren.

Ez zuten lan erraza izan epaimahaikoek. Alea egosi aurretik, babarrunaren itxura, kolorea, berdintasuna, dizdira eta

garbitasuna puntuatu behar izan zituzten. Alea egosi ondoren, berriz, itxura, kolorea, azala, alea, salda eta zaporea.

Fronton jatetxeko Roberto Ruiz, Iriarte jatetxeko Felis Belauntzarren eta Orue jatetxeko Jabi Uhalde izan ziren babarrun prestaketan lanean aritu zirenak parte-hartzaileen 20 aleak modu eta denbora berean prestatzen.

Lehiaketaren ostean, irabazlearen lekaria enkantean jarri ondoren, Astigarragako Divinus Catering enpresak 2.200 euro ordaindu zituen. Diru hori, Maliko haurrak laguntzeko bideratuko da.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Txapela nork hobeto jantzi lehiaketa

Txinparta Elkarrekin Txapela nork hobeto jantzi lehiaketa antolatu zuen atzokoan. Guztira 6 emakumezko eta 19 gizonetzko hartu zuten parte. Emakumezkoetan Maria Isabel Matarranz izan zen irabazlea 29,5 punturekin. Gizonezkoetan, berriz, Pablo Azurza 31 punturekin. Parte-hartzaile zaharrenaren saria Antonio Ordozgoitik jaso zuen, gazteenaren, berriz, Unai Garrok. ENERTIZ MAIZ



SAILKAPENA ▶

Izena	Herria
1. Juan Ugartemendia	Albiztur
2. Mari Karmen Iradi	Irura
3. Xabier Goikoetxea	Albiztur

JUAN UGARTEMENDIA ▶
IRABAZLEA

«Lehorteak eragina izan du aurtengo uztan»



MADDI SOROA

Albizturko Juan Ugartemendiak urtero hartzen du parte lehiaketan. 1995ean eta 2001ean lehenengo postuak lortu zituen, baita atzokoan ere.

Zorionak. Pozik, ezta?

Oso pozik nago, bai. Orain, gainera, bildutako babarrunak saldu egingo dira eta horrek asko poztzen nau.

Ezustean harrapatu zaitu garaipenak?

Pixka bat bai. Beldurrez etorri naiz aurtengoan lehiaketara, iazkoan 300 kilo bilduta etorri bainintzen, aurtengoan, ordea, 200 kilo soilik bildu ditut.

Aurtengo lehorteak eragirik izango zuen...

Bai, aurtengoan oso denbora lehorra izan dugu eta horrek eragin handia izan du uzta biltzerakoan. Produktzioan, alde handia nabaritu dut iazkotik aurtengora eguraldiagatik. Biltzerakoan, ordea, inoizko bilketarik onena izan dut aurtengoan, oso giro ona izan baita.

Zer du Albizturrek urteroko sariak jasotzeko?

Albizturko lurrak oso harritsuak dira eta ondorioz uzta mehea izaten da. Gure etxea dagoen tokia ere beroa da, eguzki ordu asko ditu eta horrek gauzak asko errazten ditu. ◀

TOLOSA ▶

Denen gainetik babarrunak izan ziren nagusi azokan

Babarrun Asteak nabarmen igoarazi du babarrunaren salmenta kopurua

PABLO ALBERDI

Larunbateroko ohiko azokan babarrunak izan ziren protagonista nagusia. Babarrun Astea eta babarrun onenaren lehiaketa izaki, ez zen gutxiagorako falta.

Aza, odolki, mondeju, pipper edota urdailarekin jateko euskaldunek; *poroto*, *frijoles* edota *carauta* gisa jateko hego amerikarrek. Guztiek nahi zituzten babarrunak ikusi eta erosi. Horren ondorioz, nabarmen egin zuen gora atzokoan babarrunaren salmentak.

Babarrunaz gain, ordea, izan zen besterik ere. Ehizari dagokionez, uso eta eperrak saldu ziren gehienbat. Perretikuen kasuan, onddo, gibeldin eta ziza horien salmenta oraindik ere badela zihurtatu zen atzokoan. Barazkiei dagokionez, ohiko fruta eta berdurez gain, garai honetan ohikoak izan ziren lehen azatxoak jarri ziren salgai, baita kaxiak ere.

Produktu mikologikoei dagokionez, beste behin ere ez zuten presentziarik galdu, eta perretikua mota ezberdinen eskaintza zabala jarri zuten salgai.

Berdura plazan ez zen berrikuntza gehiegirik nabaritu, pensamientoak eta ziklamenak saldu baitziren gehienbat.

AZOKA ▶

Prezioa	merk.	gares.
Berdura plaza		
Pensamientoa	1,00	-
Azalea	5,00	8,00
Ziklamena	5,50	-
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktuak

Onddoa	10,00	22,00
Ziza horia	17,00	18,00
Irisagarra	1,00	-
Tolosako babarruna-		12,00
Porrúa	1,00	2,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Arroza	1,90	2,00
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60

IBARRA ▶ GIZARTEA

I. Ibarra Motor Rock jaialdia

Eskualdeko hiru talderen Rock and Roll-a nagusi motozaleen jaialdian

MADDI SOROA

Ibarrako Langostino Moto elkarteak antolatuta eta Ibarrako Gaztetxeak lagunduta, I. Ibarra Motor Rock jaialdia ospatu zuten atzokoan eskualdeko motozaleek.

Jaialdiari hasiera emateko, 16:00etan elkartu ziren motozaleak plazan. Harley, Honda edota BMW markako motoak, besteak beste, plazan aparkatu eta bazkalosteko kafea hartu

ondoren, berriro ere moto gainean eseri eta bira egin zuten 20 lagun inguruk. Ibarrik Bidaniara abiatu ziren guztiak bata bestearen jarraian, handik, Urrakitik barrena Azpeitira iristeko. Bueltan, Beasaindik berriro ere Ibarran elkartu ziren guztiak.

Moto biraren ondoren, afaltzeko elkartu ziren 55 lagun Xepla Elkartearen. Tripa asetu ondoren, berriro, eskualdeko Silikonay, Mutuo Desprecio eta



I. Ibarra Motor Rock jaialdian izandako motozaleen motoetako batzuk Ibarrako plazan. MADDI SOROA

Agoraphobia taldeen kontzertuaz gozatu zuten Gaztetxean.

Antolatzaileek, Ibarra Motor Rock jaialdia «udako ohiko langostino moto festari jarraitkortasun bat emateko» asmoz egin dutela adierazi dute, «udaran ezezik neguan ere el-

karteak ekintzak antolatzen jarraitzeko».

Egitarauari begira, Rock & Rolleko kontzertuei eman die garrantzirik gehien motozaleek, izan ere, «gure musika gustuen inguruko kontzertua» nahi zutela azaldu baitute. Bes-

talde, «modu honetan, gainera, eskualdean Rock & Roll-a jotzen duten taldeei bultzadaxoa eman nahi izan diegu» gaineratu dute.

Ibarrako Langostino Elkarteak, ekintza gehiago antolatzen jarraituko du aurrerantzean.

EZKONGAIK 2007-08



DONOSTIAKO HERRI IRRATIA - OM 1224 - FM 94,8

IZARRA BITXITEGIA

Juan XXIII Plaza. Lasarte-Oria. 943364945.
Oparia: urrezko ezkontza-eratzunak eta ezkontza-horniak.

SANCHEZ INPRIMATEGIA

Easo, 33. Donostia 943465308. Katalogoak eta gonbidapenak.
Oparia: ezkontzarako gonbidapenak.

MUNDO MUEBLE

Arre. Iruña. 948331161 Estilo guztietako altzariak.
Oparia: 300 eurotako baliodun erosketa txekoa.

NAMUX GANG DJ

Guk musika, giroa eta dibertsioa jartzen dugu, zuek ezkontza. 647045986.
Oparia: ezkontz eguneko emanaldia.

SILKEN AMARA PLAZA HOTELA

943464600
Oparia: Silken kateko hotel batetan 2 pertsonentzako asteburua (2 gau + gosariak).

KOTXE KLASIKOAK / ROLLS-BERRI ELK.

Aitaren Naia etxea, Aduna. 627467219.
Oparia: ezkontzarako kotxearen zerbitzua.

LASTURREKO ZEZENAK

San Nikolas plaza. Lastur. 943199033.
Oparia: "zezen festa" dohainik.

MURIKKA DANTZA TALDEA

Elizkizunerako amaierarik hoberena. 647263086.
Oparia: elizkizunaren irteerako emanaldia.

AITZBELTZ

Arteta, 1. Andoain 943591226. Sukaldeko altzari eta etxetresna elektrikoak.
Oparia: AEG F-50660 ontzi garbigailua.

AUZMENDI SASTREA

Bergara, 1. Donostia. 943424060.
Oparia: senargai jantziarentzako 300 eurotako erosketa txartela.

BAYON

Bergara, 23 - Donostia. 943425087
Emaztegai jantziak.
Oparia: emaztegai jantziarentzako 300 eurotako erosketa txartela.

Posta elektronikoa.

novios@herri-irratia.com

2007-08an ezkontzen bazara, azaroaren 22a aurretik hau bete eta ondorengo helbidera bidali: HERRI IRRATIA- DONOSTIA. Garibai, 19. 20004 Donostia

Senargaiaren izen-abizenak:	Tel.:
Helbidea:	Posta kodea:
Emaztegaiaren izen-abizenak:	Tel.:
Helbidea:	Posta kodea:
Ezkontzaren gutxi gora-beherako data:	Tel.:

TOLOSA ▶ KIROLA



Hernaldeko VI. Rolleski Igoeran, parte-hartzaile ugari

Naiara Garzia ▶ 69 pertsonak hartu zuten parte Hernaldeko VI. Rolleski Igoeran. Alpino Uzturrek antolatutako ekitaldi honen helburua neguko denboraldiari nolabait ongietorria ematea zen. Skating modalitatean, gizezkoetan Joseba Rojok (Tolosa) irabazi zuen, eta emakumezkoetan, Lourdes Irazustak (Tolosa). Mutilezkoetan ere tolosar batek irabazi zuen, Xabier Saizarrek. Neska gazterik ez zen aurkeztu. Modalitate klasikoari dagokionez, irabazleak hauek izan ziren: gizezkoetan Imanol Rojo (Tolosa), eta emakumezkoetan, Dina Mendikute (Hernalde). Gazteen mailan, Pello Osoro (Eibar) eta Maialen Lopez (Irun). NAIARA GARZIA

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Autoa salgai. Ford Escort diesela. 52.000 km. Egoera onean. 943 67 10 20.

Motorra.

Yamaha WR 450 F. Enduroa. 2005 urtekoa. Matrikulatua eta seguruarekin. Extrekin, suspensioa egina. Egoera

onean. 7.500 euro. 600 90 36 28 (Joxe).

Autoa. Velle koxea, paperekin salgai. 686 79 22 34.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Fox Terrier arrazako txakur txuria galduta Tolosan. 696 82 13 84.

KONTXA ITURRALDE ▶ ABERTZALEA, HEMEN GELDITU ZEN

«Osabaren bila etorri ziren, desagertu eta Elduaingo zulo batean agertu zen»

Txaraman bizitu zuen gerra eta gerraostea; familia abertzalekoa izanik, familiak jasan zuen gerraren eragina

JOXEMI SAIZAR

Mendea betetzearan atarian dago Kontxa Iturralde Blanco (Txarama-Leaburu 1908). Hala ere Espainiako Gerra Zibileko kontu asko ez zaizkio sekula ahaztuko. Irazustatarren Txaramako paperfabrikan egiten zuen lana bere aita abertzaleak. Ama errepublikazalea zuen eta gero «abertzaleagoa» egin omen zen. Urte zail haietan bera Txaraman gelditu zen, baina bere anaiek Ipar Euskal Herrira alde egin behar izan zuten eta anaia bezalako zen osaba desagertu eta hilda agertu zen Elduainean. Goserik ez zuten pasatu, baina bai beldurra gerrak irauan bitartean eta ondorengo urteetan.

Gerra aurreko zein oroitzapen duzu?

Txaraman bizi ginen. Aita Jose Mari eta ama Dolores bertakok ziren. Aita paperfabrikako makinista zen eta gero zuzendari jarri zuten. Hamar senide ziren, bost mutil —zaharrena gerra baino lehen hila— eta bost neska. Eskolan bertan ikasi nuen, paperfabrikako eskolan, jabeek jarri zuten Ibarako maistra batekin. Irazusta familiarekin egoten nintzen, jabeekin. Ramon zen aita eta izen bereko semeak jarraitu zuen. Gero Luis iloba zegoen, Urbietan etxean bizi zena —Igarondo Zumardi Handian, Zelai eta Oriaba elkartzen diren tokian— Arkauteko paperfabrikako nagusiaren alabarekin ezkondua.

Errepublikak, nolako izan zen hemen?

Gazteak ginen. Batzuk alde batetik eta besteak bestetik ibiltzen ginen Txaraman. Errepublikar batzuk ez ziren mezetara joaten. Gu bai. Abertzaleak ginen. Ama errepublikarra zen, baina joaten zen mezetara, gero gu baino abertzaleago egin zen. Eugeni ahizpa zaharrena nagusien alabarekin zegoen Madrilan eta behin —Pazkoa zen— hara joan nintzen bisitan denboraldi baterako. Gasteizko lagun batek ekarri-tako espertinekin joan nintzen trenean, zinta zuri-gorri-berdeak zituztenak. Oso politik.



Kontxa Iturralde duela urte batzuetako argazki batean. HITZA

Gasteizen militar bat sartu zen trenean bere emaztearekin. Oso jatorra, gaztea eta fina zen eta pertsona ona ematen zuen. Espartin haiekin kontuz ibiltzeko esan zidan, modu onean, Madrilan zerbait egingo zidatela agian. Ez nituela kenduko esan nion eta ez nituen kendu. Gaztea nintzen eta badakizu... Haiekin ibili nintzen batera eta bestera. Nagusiaren txoferrarekin ibili ginen haren alaba, nire ahizpa eta ni. Palacio Real ikusi nahi nuen eta han Altzoko mutil bat topatu nuen soldadu. Orduan zein joaten zen Txaramatik Madrilera?

Nola gogoratzen duzu gerraren hasiera?

Tolosan sartu baino egun batzuk lehenago izango zen. Txaramara Nafarroatik eta Lizarzikatik barrera etorri ziren erreketek. Tirorik, istilurik eta ezer ez zen izan. Inguruko herrietako batzuk ere tarteen ziren, Atalluko maisua, besteak beste. Beteluko balnearioan jende asko zegoen, zerri asko zegoen han Madriletik etorriak. Zergatik? Paperfabrikako nagusiek alde egin zuten hemendik eta lotsagabe haiek fabrikako etxean sartu ziren, hutsik zegoen eta. Handik gutxira fabrika berriro martxan jarri zuten eta nagusiak itzuli egin ziren. Erreketek Donos-

alde egin zuen. «Jito zikin horiek», esaten zuen amak. Martingana joan zen, baina hara joan aurretik Eugeni ahizparen laguntza izan zuen. Geroago Juantxo ere joan zen, baina handik gutxira itzuli zen. Duela gutxi hil da. Joaquin Ipar Euskal Herrian gelditu zen, ezkondu egin zen eta aspaldi hil zen. Garaje batean zerbaitetan ari zirela leherketa batek bi hankak moztu zizkion. Martin han bizitu da eta duela gutxi hil da. Ahizpa zaharrena, Eugeni, nagusiekin oporrak pasatzen zen eta haiekin egon zen aldi batean. Gurasoak eta ni hemen gelditu ginen eta beste anaia —Jose Mari— eta hiru ahizpa —Pilar, Lola eta Teresa— ere bai, txikiak zirelako.

Beraz, inor ez zen gerrara joan.

Ez, baina handik urte batera edo osaba Eusebio Iturraldearen bila etorri ziren. Bere anaiek alde egin zuten beldurrez eta bera bakarrik gelditu zen amarekin etxean. Eusebiok Eskolapioetan ikasi zuen, paperfabrikan egiten zuen lan eta inbidia zioten postu ona zuelako. Frantziara fabrikari lapurtutako diruarekin alde egin zuela zabaldu zuten. Nire adinekoa zen, ondoan bizi zen, niretzat anaia bezalako zen. Elduako Kalparsoro paperfabrikako nagusiak abisua eman zigun, zerbait arraroa ikusi zuela, bila hasi eta Elduainean agertu zen hilda zulo batean [1939ko irailaren 3an agertu zen hilda, 26 urte zituela, Iñaki Egañaren liburuaren arabera]. Beste mutil bat, maisu zena, eta neska bat, buruko ilea erabat moztuta zuela, agertu ziren zulo berean. Neskaren familiakorik ez zen agertu. Osaba Txaramara ekaritzen ez ziguten utzi, bertan hileta egin eta lurperatu zuten eta han dago. Duela urte batzuk Txaramara ekartzeko aukera izan genuen, baina ez genuen nahi izan. Beste osaba, Bixente, Bizkaira joan zen gudariek. Ospital batean gaixo zegoela esan ziguten, baina ez zen agertu.

Bitxikeria bat edo gogoratzen al duzu?

Erreketek etorri zirenean denak komunistak ginela edo uste zuten. Behin soldadu batek bizarra kendu nahi zuela eta etxera sartzeko baimena

TXARAMA

«Paperfabrikako nagusiek alde egin zuten eta lotsagai haiek etxean sartu ziren, hutsik zegoen eta»

ERBESTEA

«Anaiaren bila etorri behar zutela abisatu ziguten eta Ipar Euskal Herrira alde egin zuen; eta gero beste anaia»

eskatu zigun. Utzi genuen eta harritu egin zen kristau koardroak ikustean. Beldur handia genuen, baina ausartarenak egiten genuen.

Goserik pasatu al zenuten?

Ez. Alde egiten zutenek bai. Baserrian denetatik genuen: ahateak, oilaskoak, txerriak, baratzak... Eta gasolindegia. Bale batzuekin etortzen ziren gasolina erostera Txaramara. Arrazionamendua zegoen denetarako. Ezagutzen dut hara baleekin joaten zena.

Asko sufritu al zenuten?

Pentsa... Hiru anaiek Iparraldean zeuden eta ez genekien nola zeuden. Hainbeste ume etxean... Joaquin anaia hil zela abisatu zigutenean joan nahi izan genuen hara, baina ez ziguten utzi pasatzen. Irunen gelditu ginen lotan eta ospakizunak izan ziren herriraino bat hartu zuten eta. Zein nazka!

Gerraren bukaerak zein ondorio izan zuen?

Gerra galdu zen eta gero izan ziren istorioak. Jendea etxera itzultzen hasi zen eta ez zieten etxera sartzen uzten, beste batzuk zeudelako. Beldur handia genuen denok. Bi osaba Iturralde ia hilda itzuli ziren, oso gaixo. Bat berehala hil zen. Beste beranduago. Nazka ematen zigun batzuekin elkartzea. Adibidez, auzoko anaia erreketek batzuek fabrikari lan egin nahi zuten, baina Irazusta nagusiak nahiago zuen dirua etxera bidaltzea atezainarekin lanean edukitzea baino. Behin, Santa Marian mezetan Jauna bertara joan nintzen batean, horietako bat fraile bezela ikusi nuen eta korrika atera nintzen elizatik.

iragarki laburrak ▶

LANA

Garbitzaileak behar dira ospitaleetan, ikastetxeetan eta eraikin publikoetan. Astelehenerik ostiralera. Kontratu mugagabea. 943 326 663.
Administrazio langileak.

Udalekxetan 36 plaza. Donostia. 943 326 663

Irakasle bezala lan egin ikastetxe eta institutuetan. Magisteritza edo lizentziatura eskatzen da. Presta zaitz aukera honetarako. 943 326 663.

Mantenua. Bilborako 24 plaza libre. Presazkoa betetzeko. 943 326 663.

Gidariak behar dira lanpostu finkoak betetzeko. 943 326 663

Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak behar dira lanpostu finkoetarako. 943 326 663.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Babarrunaren Astearren harira, ondorengo ekitaldiak izango dira gaur: 08:00etan XX. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa Ferialekuan; 10:30ean, IX. Artzain Txakur Lehiaketa egingo da lurrarendiko zelaietan; 12:00etan II. Munduko Aizkolari Azkarrenaren Txapelketa egingo da Beotibar frontoian; 13:00etan, Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoko sari banaketa Ferialekuan; 14:30ean, herri bazkaria Ferialekuan; 17:00etan, Lasturgo zezen enbolatuekin erakustaldia eta festa Zezen plazan; 19:00etan, Jean Bordaxar Laukotearen kantaldia Berdura plazan; 19:00etan, *Nomadak TX* dokumentalaren zine emanaldia Leidor aretoan. **Anoeta.** Udak Batzarraren etorriko bilkura egingo dute bigihar, 20:15ean. **Berastegi.** Odola jasotzera etorriko dira hilaren 17an. Odol emale guztiei egiten die deialdia odol emaleen elkarteak. **Tolosa.** III. Gorren Sentsibilizazio Astea hilaren 17an eta 18an Tolosaldea-Goierriko pertsona gorrek antolatuta.

ERAKUSKETA

Alegia. Azaro Kulturalaren baitan, argazki erakusketa dago ikusgai: *Alegia lehen eta orain*. Alegiko argazki taldeak jarritako dira, eta bihar izango da ikusteko azken eguna.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

Bihar
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaro auzoa, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irrattia
(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Hitzak hegana* (errepikapena)

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Ahari jokua egin zuten Amasan. N. GARZIA



Alkizan herriko umeak lokotx biltzen aritu ziren. N. GARZIA

San Martin ospatzen

ALKIZA-AMASA-AMEZKETA ▶ Jokuak, kirol ekitaldiak, dantza emanaldiak, jana eta edana ez dira faltatu San Martin eguneko ospakizunetan

NAIARA GARZIA

San Martin eguna eskualdeko hainbat herritan ospatu zuten atzo. Alkiza eta Amezketa kasuan, egun bakarreko jaia izan zen, baina Amasari dagokionez, azaroaren 7tik festetan dagoenez atzokoa, San Martin eguna, festetan barruko beste egun bat gehiago izan zen.

Alkizan San Martin eguna urtero ospatzen dute, eta aurten, ospakizun horri eusteko, haurrentzako jolasak antolatuz zituzten arratsaldean zehar. Lokotx-bilketan ibili ondoren, toka txapelketan ere aritu ziren. Gauean, herriko frontoian afari ederra prestatu zuten, baina alde zurretik, 18:00 aldera, poteoa egin zuten. Afaria herriko kantu taldeak antolatuz zenez, poteoan ibili ziren bitartean ere abesti batzuk kantatu zituzten. Hernani, Donostia eta beste zenbait herritako kantu taldeei gonbidapena luzatu zieten alkizatarrak, eta 140 inguru pertsona bildu ziren afaltzera.



Amezketako gazteak San Martin eguna ospatzen. N. GARZIA

Amezketan, berriz, Gazte Taldeak eta Ospelak antolatuz, bazkaria egin zuten herriko ermita ondoan. Karretil karrera, txerri-harrapaketa, zaku-karrera, eta horrelako jokuaetan ere ibili ziren, herrira trikipoteoa egitera jeitsi baino lehen. Gauean festak han goian jarraitu zuen, 2 taldek kontzertua eskeini baitzuten: Skamachine eta Birracel-ek.

Amasan festetan daude hilaren 7tik, eta atzo, meza nagusiaren ondoren ahari jokua eta asto karrera antolatuz zituzten. Arratsaldean bertsoari jaialdiaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek, eta gauean, dantzaldia izan zuten.

Gaur 11:00etan ume krosa egingen dute, eta arratsaldeko 18:00etan, herri kirolak. Hurrengo asteburuan samartifik jaiekin jarraituko dute, eta urtero bezala, herri bazkaria ospatuko dute, txekor janarekin. Argazki lehiaketa ere antolatu dute, eta sari banaketa eta argazkien proiektzioa larunbatean egingen dira, herriko Kultur Etxean.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Zorionak Larraitz!

Ondo pasa ezazula eguna familiakoekin. Karlosen partetik.



ZORIONAK!

Anartz Belaunzarán Sarasola (Villabona). Gaur urte bat. Muxu handi bat familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZaren egoitza Tolosan
Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZaren egoitza Leitza
Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzak,
urrezko etzeiak,
ezkontzak, jaioberriak...